

Sorginen Lasterketa, arrakastaren atzean dauden aurpegiak



Sorginen Lasterketa erreferenteetariko bat da Euskal Herriko mendi probetan. Antolatzaileentzat "poz handia" da hori, baina baita "erantzukizuna" ere. Eneritz Agirre, Jon Aranburu eta talde zabal bat lanean buru-belarri dabilta egunotan, irailaren 17ko proba behar den moduan irten dadin. • **23**



"Ibaizabaleko jaiek lagunartean eta familia giroan batzeko elkargunea eskainiko dute"

Durango • Asteburu honetan jaiek ospatuko dituzte Durangoko Ibaizabal auzoan, lehenengoz. Ortzi Egia Arakistain eta Xabier Totorikaguena Arribas jaiek antolatzen dabilta kideetariko bi dira. Jaiek auzotarrentzat topaleku izatea gura dute. • **4**

Oroimen ekitaldia Berrizen, frankismoak hildako biktimak gogoratzeko



Memoria historikoa • Berrizko Udalak eta Berriz 1936 Gogoratzen kultur elkarteak frankismoaren biktimak omentzeko ekitaldia egingo dute domekan, 11:30ean, Felipe Urriaga plazan. Ondoren, Gutun bat Saturraranera bertso trama egingo dute. • **11**



ANTONIO KAJOI

Eleizetan jaialdia 6 kontzertu izango ditu

Musika • Zornotzako elizak askotariko musiken eszenatoki izango dira bihurtik aurrera. Eleizetan jaialdia bihar ipiniko da martxan, Neomak taldearen kontzertuagaz, Exanoko elizan, 20:00etan. • **18**

DURANGO

72,36€

Ikasturte osoa

**HIZKUNTZA
ESKOLA OFIZIALA**

Zubiaurrea Kalea, 1, 48200 Durango · 015054aa@hezkuntza.net
946 81 66 45 · www.eoidurangoheo.hezkuntza.net



MATRIKULA ZABALIK

Irailaren 1etik 16ra (1.fasea)

Irailaren 16tik 29ra (2.fasea)

Talde presentzialak eta erdipresentzialak

Ziurtagiri Ofiziala

Deutsch · English · Euskara · Français





SORGINEN LASTERKETAKO DATUAK

- EGUNA: Irailak 17, zapatua.
- HASIERA: 09:00etan, Axpeko plazan.
- DISTANTZIA: 21 kilometro.
- DESNIBELA: 1.700 metro.
- KOPURUA: 350 korrikalari.
- ZUZENEAN: Twitch bidez 'sorginenlasterketa2022' kanalean eta www.anboto.org webgunean.
- SARIAK: Irabazleak 250 euro, txapela eta garaikurra; bigarrenak 175 euro eta garaikurra; hirugarrenak 100 euro eta garaikurra. Beteranoek eta Atxondoko lehenengoak ere sariak izango dituzte.

“Urtean zehar dozena bat lagun gabiltza Sorginen Lasterketa prestatzen, eta egunean bertan 100 bat laguntzaile izaten ditugu”

Sorginen Lasterketa Euskal Herriko mendi lasterkeren erreferenteetariko lez helduko da bere 15. aldira, irailaren 17an. Itzalean lan eskerga egiten duen lantaldeari zor zaio hori. Eneritz Agirre Armendia (Atxondo, 1983) eta Jon Aranburu Ingunza (Atxondo, 1986) talde horretako kideak dira

ATXONDO • JOSEBA DERTEANO

Zenbat laguneko lantaldea zabiltazte Sorginen Lasterketa antolatzen?

Jon Aranburu: Hasieran, Juan Sampedrok, Jose Luis Romerok eta Durango Kirol Taldekoek eraman zuten pisurik handiena. Azkenengo lau-bost urteetan, DKTK jarraitzen du, baina Atxondoko lantalde batek daruma antolaketaren ardura nagusia. Urtean zehar dozena bat lagun gabiltza Sorginen Lasterketa prestatzen, eta egunean bertan 100 bat laguntzaile izaten ditugu. Eurei denei eskerrak antolatzen da lasterketa. **Ibilbideari dagokionez, iazkoari eusten diozue?**

J.A.: Bai. Iaz arte asfaltotik batzuten zen bidegorriraino, eta

hortik aurrerako lehenengo kilometroak bidegorritik ziren. Orain, zuzenean hasten gara gorantza, Larrano barreneraino. Gero, Anboto azpitik pasatzen gara, Zabaletatik, eta galtzadan lehengo bideagaz bat egiten dugu. Parte hartzaileek gurago zuten mendi bidea asfaltoa barik, eta horregaitik aldatu genuen ibilbidea. Urteak generamatzen zelan egin pentsatzen.

Orain lau-bost urte ibilbidea Anbototik izatea mugarri bat izan zen lasterketarentzat?

Eneritz Agirre: Baietz esango nuke. Anbototik igarotzen denetik, lasterketak beste erakargarritasun bat du. Eta iazko aldaketagaz, oraindino erakargarriagoa da.

Izen-ematea di-da betetzea poztekoa izango da.

E.A.: Poz itzela ematen digu, bai, baina erantzukizuna ere eskatzen du. Antolatzaile lez dena behar den moduan irtetea gura izaten dugu. Egia esan, dortsalak agortzeak asko errazten dizkigu gauzak. Badakigu zenbat kamiseta eskatu eta zenbat poltsa prestatu behar ditugun. Ez dugu azken egunera arte itxaron behar horrelako kontuak argitzeko.

Aurtengo ekitaldia borobiltzeko, Euskal Herriko txapelketa izango da.

J.A.: Bai, eta horri eskerrak Euskal Herriko punta-puntako korrikalariak etorriko dira.

Nortzuk etorriko dira?

J.A.: Mutiletan, Gontzal Murgotiok, Asier Larruzeak, Imanol Goñik, Javi Goitiak, Aitor Ajuriak eta Markel Urigoitiak eman dute izena, besteak beste. Eta, emakumeetan, Onditz Iturbek, Ainara Urrutiak, Ainara Uribarrik, Andrea Garaik eta Garazi Sampedrok. Baten bat faltako da, baina puntakoak datoz.

Inoiz pentsatu duzue herriko proba lez hasi zena Euskal Herriko erreferenteetariko bat bihurtuko zela?

J.A.: Ez zan erraza hori pentsatzea. Azken urteetan ikusi dugu jendea erakartzen duen lasterketa dela. Aipatu dudan moduan, neurri handi batean ibilbide aldaketagaitik izan dela esango nuke.

E.A.: Eta Axpe oso inguru polita dela ere aipatu behar da, ezin hobea

goiz-pasa eder baterako. Aurten, gainera, Zigor Iturrieta eta Oier Ariznabarreta egongo dira esatari lanetan plazan, eta ondo berotuko dute giroa, seguru!

Zelakoa da mendi lasterketen gaur egungo egoera? Apaldu da sasoi bateko booma?

J.A.: Boomak jarraitu egiten duela esango nuke. Asteburuero daude lasterketak, eta makina bat jende egoten da denetan. Desagertu dira lasterketa txiki batzuk, baina oraindino korrikalari asko erakartzen dute.

Zuek korrikalariak zarete?

J.A.: Ni ibiltzen naiz, baina sekula ere ezin izan dut Sorginen Lasterketan parte hartu, antolakuntzan egon naizelako. Urteren batean egin gura nuke... Nire helburuetariko bat da.

Aurtengo aldiari begira, badago nobedaderik? Informazio erabilgarririk?

J.A.: Sorginen Lasterketako Instagramen Wikiloc-eko track batzuk ipini ditugu, kanpotik lasterketa ikustera datozenek edo ingurua ezagutzen ez dutenek lasterketa non ikusi dezaketen jakin dezaten: Asuntzan, Larrano azpian, Artolan, Anboto inguruan... Jenderik gehien Artolan batzen da lasterketa ikusteko.

E.A.: Track horietan begiratuta, kotxea non utzi dezaketen eta tokietara nondik joan daitezkeen ikusiko dute ikusleek. Axpe, Atxarte eta Arrazola dira track horietako abiapuntuak. Korrikalariak esan digute eurentzat oso motibagarria dela ibilbidean jendea animatzen egotea.

Ariznabarretagaz eta Iturrietagaz zuzeneko emankizuna Twitch-en

Aurten, lasterketa proba munduko edozein txokotatik eta zuzenean jarraitzeko aukera eskainiko dute Sorginen Lasterketako Twitch kanalaren bitartez. Anbotoko webgunean (anboto.org) ere zuzenean jarraitu ahal izango da. Ibilbidean zehar, zortzi bat mugikorren bitartez korrikalarien ibilerak grabatuko dituzte eta plazan egongo

da errealizazio gunea. Horrez gainera, dron batek Anbotoko gailurreko irudiak hartuko ditu.

Esatariak ez dira nolanahiakoak izango: Zigor Iturrieta eta Oier Ariznabarreta. Korrikalari handiak dira biak, baina, oraingoan, hankak beharrean, mihina ipiniko dute dantzan emankizunari gatza eta piperra jartzeko.

ATXONDO • J.D.

Sorginen Lasterketako edizio guztietan parte hartu duzu, baina aurtengoan kale egin beharko duzu.

Klabikula apurtu nuen San Inazio egunean, bizikletan nenbilela. Pentsatzen nuen Sorginen Lasterketarako helduko nintzela, baina traumatologoak esan dit irailaren 23ra arte sorbalda babestekoa ipinita eraman behar dudala.

Pena itzela izango duzu.

Pena handia hartu dut, bai. Etxeko lasterketa da eta orain arteko edizio guztietan parte hartu dut. Gainera, aurtun Euskadiko Txapelketa da eta maila handia egongo da.

Gogo handia izango zenuen proba egiteko.

Bai, baina, hala ere, ez nintzen sasoiko helduko. Apirilean besaburua atera zitzaidan eta uztailean erdira arte geldirik egon naiz. Baina banuen ilusia parte hartzeko.

Aurtun ikusle lez joango zara lasterketara?

Antolakuntzan laguntzen ibiliko naiz. Taldekoekin Asuntza aldean hornidura puntuan-edo egongo naiz.

Hurrengo edizioetan parte hartu beharko duzu.

Jakina, eta datorren urtean inoiz baino indartsuago, seguru. Be-

"Mendi lasterketetan banabil, Sorginen Lasterketari eskerrak da"

Hamabost urtez Sorginen Lasterketa hasi eta amaitu du Asser Alonso atxondarrak. Baina, aurtun, lesio baten eraginez, ezingo du lehiatu. Ondo gogoratzen ditu bere herrian antolatutako lasterketan parte harturiko aldiak

launek aguantatzen duten bitartean hementxe egongo naiz.

Sorginen Lasterketaren batean jausi egin zinen, baina heldu zinen helmugara.

Orain dela lau urte, Asuntzatik beherantza, Guenzelain, oso bizkor joanda estropezu egin nuen Artolarako bidegurutzean, eta kolpe handia hartu nuen. Jakinda semeagaz helmugaratuko nintzela, derrigorrez heldu behar nuen, astiro bazen ere. Laugarren edo bosgarren nindoan, Axier Alonso-gaz batera, baina horrelakoak ere pasatzen dira. Ediziorik gogorre-na izan zen urte horretakoa.

Zein izan da zure denborarik onena?

Orain dela urte bi egin nuen denborarik onena. Geroago eta maila handiagoa da, eta gatxa da aurrean ibiltzea. Gazteak gogor datoz.

Gogoratzen duzu lehenengo edizioa?

Bai, lasterketa herrikoa izan zen. Asfaltoko zapatilla batzuekin egin nuen. Begira zelako trail kultura nuen! (barrez). Aste bat



Asser Alonso Armendia

Korrikalaria

ATXONDO | 1983

mugitu ezinik pasatu nuen. Eta hortxe hasi zen dena. Lasterketetan banabil, Sorginen Lasterketari eskerrak da. Sorginen Lasterketak bere gorabeherak izan ditu, baina oraingo ibilbideagaz, Anboto sartuta, oso lasterketa polita da. Denetik dauka.

Zein izan da unerik hunkigarriena?

Orain sei urte, lasterketa baino egun bi lehenago, izeko hil zen. Bere semea, nire lehengusua, lasterketa prestatzen ibili zen. Parte ez hartzea pentsatu nuen. Lehengusuak esan zidan bere amaren omenez egin gura zuela, eta beragaz batera egin nuen lasterketa. Gehien disfrutatutako lasterketa

izan da. Lehengusua beste erritmo batean zihoan, astiroago, baina ni beragaz. Normalean, paisaiari begiratzeko astirik ere ez dut izaten, baina aldi hartan bai. Elkarregaz sartu ginen helmugan. Izeko lasterketaren bueltan ibiltzen zen beti, eta polita izan zen omenaldi hori egitea.

Durangaldeko albisteak jaso gura dituzu?



Bidali ALTA
688 635 041
telefono zenbakira

Batu Anbotoko
Whatsapp taldera!



anboto



Xabier Totorikaguena Arribas eta Ortz Egia Arakistain Ibaizabal auzoko jaiak antolatzen dabilzan kideetarik bi dira.

"Ibaizabaleko jaiak herrian asteburu eder bat pasatzeko aukera emango dute"

Durangoko Ibaizabal auzoan jaiak ospatuko dituzte, lehenengoz. Arratsalde honetatik bihar gauera arte, askotariko ekintzak egongo dira auzoko berdegune nagusian

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Ortz Egia Arakistain eta Xabier Totorikaguena Arribas Ibaizabal auzoko jaiak antolatzen dabilzan kideetarik bi dira. Gogotsu daude astebururako, jaiak ondo pasatzeko aukera eskaintzeaz gainera auzotarrentzat topaleku bat sortuko dutelako.

Ibaizabal auzoan jaiak ospatuko dituzte, lehenengoz. Nondik dator jaiak sortzeko ideia?

Ortz Egia: Plan eta ideia asko zerbeza baten bueltan sortu ohi da eta auzoan jaiak ospatzeko ideia hau ere halantxik sortu zen. Tragoxka batzuk hartzen genbiltzala, baten batek bota zuen ea ospatuko genituen jaiak Ibaizabalen. Egia esan, horrelako zerbaiten falta igartzen genuen. Izan ere, izurri garaian asko egon gara terrazetan. Jende berri askok, gazte askok, modu horretan ezagutu dugu elkar. Baina, halako batean, normaltasuna etorri da, Goienkaleko giroa, beste auzoetako, herrian zehar dauden beste hainbat tabernatakoa... Eta giroa lehengoratze hori positiboa den arren, Ibaizabalek bizi puntu bat galdu zezakeela ikusten genuen. Beraz, zelan eman bizi pun-

tu bat auzoari? Jaiak eginda. Ideia mahai gainean ipini eta aurrera egin dugu.

Zelako auzo giroa dago Ibaizabalen?
Xabier Totorikaguena: Auzoan bizi naiz. Badira sei bat urte hemen bizi naizela. Hemengo etxebizitza blokeek 15 urte izango dituzte

Adin tarte guztiei begirako ekintzak

Jaiak umeentzako ekintzeekin hasiko dituzte, gaur, 18:00etan. Txupinazoa (19:00etan), pintxo pote herrikoia (19:00) eta musika ipintzea izango dituzte gero (21:30). Ospakizunak bihar jarraituko du, umeentzako jolasekin (11:00), patinete lasterketaz (11:30), umeentzako sushi tailerragaz (12:00), marmitako txapelketagaz (13:00), mus txapelketagaz (16:30), txarangagaz (19:00) eta Penny Fleck eta EK Ramirez & Zenn taldeen kontzertuekin (21:30).

gehienez, eta, horrenbestez, nahiko auzo berria dela iruditzen zait. Hemen ume eta guraso gazte asko dago, eta jaiak eginda aukera bat gehiago eman gura diegu denei.

Asteburu honetan askotariko ekintzak dituzue zain. Zeintzuk nabarmenduko zenituzkete?

X.T.: Egitarauko ekintzarik potoloena marmitako txapelketa dela esango nuke. Jende ugari eman du izena. Gero, umeentzako jolasak daude. Egun bitan egingo ditugu, barikuan eta zapatuan. Auzoak horretarako beharrezana duela ikusi dugu. Azkenik, kontzertuak daude. Ondo pasatzeko tarte bat hartuko dugu hor. Ortzik esan duen moduan, zerbeza baten bueltan hasi zen hau, eta zerbeza baten bueltan amaitu beharko! (barrez)

Zer esango zeniekete auzotarrei, durangarrei?

O.E.: Ibaizabaleko jaiak herrian asteburu eder bat pasatzeko aukera eskainiko dute, hondartzara joateko beharrezanik barik. Lagun artean eta familia giroan egoteko, eta beste herritar batzuk ezagutzeko elkargune bat izango da.



Auzo etxea Errotarixuena kaleko 12. eta 13. atarietan ipiniko dute.

Aramotzeko auzo etxe berria Errotarixuena ipiniko dute

Lokalak bilerak egiteko gunea zein ostalaritza gunea izango ditu. Durangoko Udalak lizitazioa atera ditu lanak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak lizitazioa atera ditu Aramotzen auzo etxe berria egiteko lanak. Ia 200 metro karratuko esparruan, auzo etxeak aisialdirako eta gizarte jardueretarako leku berri bat eskainiko die auzotarrei. Bilerak egiteko gunetik aparte, ostalaritza jarduera ere izango du guneak. Udalak taber-

nako barra, mahaiak, sukaldea, komunak eta biltegia atonduko dituela iragarri du. Hain zuzen ere, Errotarixuena kaleko 12. eta 13. atarietan egongo da auzo etxe berria. Obren lizitazioa 239.600 eurokoa da. Aramotzekoaz gainera, udalak Muruetarren eta Juan Itziarren ere egingo ditu auzo etxeak.

Durangoko Komertzio Bonuak, hilaren amaierara arte salgai

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Komertzio Bonuen kanpaina bueltan da. Irailaren 30era arte, durangarrek herriko komertzioetan kontsumitu ahal izateko bonuak erosi ditzakete <https://bonoa.durango.eus> web atarian. 10 euroko bonua erositara 15 eurora arteko erosketa egin ahaliko dute. Herritar bakoitzak 4 bonu erosi ahal izango ditu gehienez. Saltoki bakoitzak 15 euroko 200 bonu aurkeztu ahaliko ditu gehienez (3.000 euro). Kontsumoa negozioen artean dibertsifikatzea gura du udalak. Oraindino ize-

na eman barik dauden saltokiek hilaren 30era arteko epea izango dute kanpainan inskribatzeko.

Modu presentzialean

Arrakala digitalari aurre egiteko asmoz, 65 urtetik gorakoek modu presentzialean erosi ahal izango dituzte bonuak irailaren 30era arte. Turismo Bulegora jo beharko dute horretarako, NAN agiria eta banku txartela aldean eramanda. Udal agintariek adierazi dute kanpainagaz "bultzada bat" eman gura dietela komertzio txikiei zein bezeroei.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko irailaren 9a
20. urtea - 904. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hizkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durangoko TAO zerbitzua gune gehiagotara zabalduta eta ordainketak egiteko aplikazio berriagaz dator

Zerbitzua Muruetatorrera eta Txibitenara zabalduko dute. Udalak hango biztanleen "eskari historikoari" erantzun gura dio

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak irailaren 26tik aurrera martxan ipiniko den TAO zerbitzu berriari buruzko xehetasunak eman ditu. Aldaketa nagusia zonifikazioan dago. Orain arte indarrean egoniko eremu biak mantentzeaz gainera, beste bi sartuko dira indarrean. Beraz, lau izango dira guztira. Modu horretan, lehen ailegatzen ez zen eremuetara ailegatuko da TAO zerbitzua: Muruetatorre, Ibaizabal eta Txibitena aldera, esaterako. Udalak hango biztanleen "eskari historikoari" erantzun gura dio horregaz. Aritz Bravo zinegotziaren berbetan, eremuok "gainezka" egon dira orain arte, zerbitzu publiko ugari dagoelako han (osasun zentroa, kirol instalazioak), hain zuzen ere. Bada, aurrerantzean, bakoitzak "bere auzoan edo kalean aparkatzeko erraztasun gehiago" izango duela adierazi du Bravok, "herri barruko joan-etorriak" ekidinda, bide batez.

Honako hauek dira zerbitzu berriak ekarriko dituen berrikun-



Francisco Ibarra kalea 3. zonaldean dago kokatuta.

tzetariko batzuk: Zumalakarregi kalea (Ezkurdi) eta Herriko Gudariaren kalea (Anbulatorio zaharraren ingurua) errotazio altuko gune izatera pasatuko dira irailaren 26tik aurrera. Bertan, 90 minutuz baino ezingo da kotxea utzi, gehienez. TAO berdea duten 58 aparkaleku ipiniko dituzte. Alde Zaharreko bizilagunek aparkatzeko aukera gehiago izango dute gune histori-

koaren bueltako kaleetan. Horretarako, udalak egoiliarrentzako leku gehiago ipiniko du Kurutziaga kalean, Alde Zaharretik Garai jauregia dagoen lekuraino. Montevideo kalean ere, berdin.

Zerbitzuari buruzko xehetasunak argitzeko, dagoeneko martxan da Internet atari berri bat: otadurango.eus. Bertan, egoiliar txartela lortu ahal izateko baldin-

tzak, parkimetroen kokalekua eta TAO eremuen mapa kontsultatu daitezke. Horrez gainera, sakelako telefonoetarako baliagarria den aplikazioa kaleratu dute: ArinPark. TAO zerbitzuaren erabiltzaileak sakelakoaren bitartez ordaindu ahaliko du aparkalekua, parkimetrora jo barik. TAO zerbitzua

Alde Zaharreko bizilagunek egoiliarrentzako leku gehiago izango dute

Gertek enpresak kudeatuko du. Udalak eta enpresak 3,7 milioi euroko akordioa itxi dute datozen bost urteetarako.

TAO zerbitzua behar den moduan erabiltzen dela ziurtatzeko, zazpi ikuskatzaile egongo dira beharrean. Horrez gainera, auto ikuskatzaile bat arduratuko da TAO guneetan aparkatuta dauden autoak era egokian daudela konprobatzeaz.

Durangoko euskal presoek egoera zein den azalduko dute hilaren 16an

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Azken urteotako aldaketek herritarrengan "galdera eta zalantza asko" sortu dituztela eta, Durangoko Sarek berbaldua antolatu du herriko euskal presoek egoera azaltzeko. Joseba Azkarraga Sareko kideak eta Txema Matanzas abokatuak "gaur egungo egoera zein den" azalduko dute "legediari buruzko nondik norakoak" plazaratuta. Berbaldua hilaren 16an izango da, Durangoko Hizkuntza Eskolako aretoan, 19:00etan. Nerea Iriartek gidatuko du saioa.

Durangoko Sarearen berbetan, "Durango egoera berriaren argazki garbia" da. "Zortzi presotatik zazpi bigarren graduan daude, eta hirugarren graduan bat", diote. Plataformak gaineratu du zortzi preso horietatik zazpi Euskal Herriko espetxeetan daudela. Lola López Resina, ostera, Logroñon (Errioxa, Espainia) dago preso. Sarek "berehala Euskal Herriratzea" eskatu du.

BETI GERTU!

ELORRIORA

HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, Iurreta

Durangaldeko Angelman sindromea elkarteko kideek txosna ipiniko dute, zapatuan, Izurtzan, herriko jaien barruan

Joan zen domekan, Santa Ageda ermitaren inguruan ospatzen den jaieguneko barraren ardura izan zuten, eta asteburu honetan plazan egongo dira; baturiko dirua "ongi etorria" da urtean zehar egiten dituzten ekintzak finantzatzeko



Joan zen domekan Santa Agendan ipinitako barraren irudia.

IZURTZA • J.D.

Izurtzan jaietan murgilduta daude egunotan. Jaietako egun handi bat lehenengo domeka izaten da, Santa Ageda ermitaren bueltan ospatzen dutena. Han, ermitaren ondoan dagoen aterpe batean, jan-edana eskaintzeko aukera egoten da eta 2016tik hona Durangaldeko Angelman Sindromea elkarrekin du ardura hori. Pandemiako parentesia kenduta, aurten bosgarren urtez jarraian egon dira bertan.

Zapatu honetan, jaietako ekintzak herriguneari izango dira eta hantxe ipiniko dute txosna, plazaren ondoko frontoian, hain zuzen ere. 19:00etan jaietako tortilla txapelketa hasiko da, eta, ondoren, afari herrikoia egingo dute, hantxe bertan. Azkenik, Luhartz taldearen

erromeriak emango dio errematea egunari, 22:30ean.

Balorazio positiboa

Elkarteko kideek Santa Ageda egunaren balorazio positiboa egin dute. Eguraldia lagun, jende dezentegon zela diote. "Egun horietan ateratzen dugun dirua oso baliagarria da guretzat", azaldu du Luisma Reyes elkarteko kideak.

Jaien barruan, bihar tortilla txapelketa eta Luhartzen erromeria izango dira plaza inguruan

Beste ekimen batzuetatik jasoriko laguntzagaz ere esker oneko daude. Zaldai mendi taldeak antolatzen duen mendi bizikleta probako izen-emateagaz jasoriko dirua euren eman izan diete. Uztai gimnastika erritmiko taldeak ere egin izan du diru bilketa euren alde gimnasia erakustaldiren batean.

Hilekoari buruzko tailerra emango dute, hilaren 18an, Mallabian

MALLABIA • J.D.

Mallabiko Nahikari emakumeen elkartekoek ikasturte berriko lehenengo ekintza egingo dute irailaren 18ko domekan, 12:30ean. Gure gorputzeara hurbilduz: ziklo menstrualaren izeneko tailerra antolatu dute. Gaztelan izango da eta Eva San Josek gidatuko du. Tailerrean, kontzeptuen oinarriko sarrera egin eta hilekoaren faseak azalduko dituzte. Horregaz batera, gaiaren gaineko mitoa desmuntatu eta bertaritzen diren zalantzak argituko dituzte. Tailerra Mallabiko Kontzejuzarrean izango da eta pertsona guztientzat dago zabalik.

Mañariko ibilbideak informazio paneletan seinaleztatuta daude

Ibilbideak plazatik irteten dira, Aldebaraieta, Arrueta eta Aldegoiena ingururantz; hiru bideak udan markatu dituzte



Ibilbideei buruzko informazio panel nagusia Mañariko plazan dago.

MAÑARIA • J.D.

Mañariko Udak hiru ibilbide sortu ditu herriak dituen paisaiak eta aberastasuna ezagutarazteko. Udan ibilbideak markatzen ibili dira eta panel informatiboak ere ipini dituzte plazan, hiru bideak hasten diren tokian, eta baita ibilbide barruan ere.

Aldebaraieta ibilbidea (5,3 km), Arrueta (6,5 km) ibilbidea eta Aldegoiena ibilbidea (4,4 km) izena dute hiru bideak, eta izen bereko auzoak dituzte helmuga. Ibilbide bat Mugarra mendi alderantza doa, beste batek Eskuagatz inguruko paisaietara darama ibiltaria, eta hirugarrenak Untzillatx inguruko basoetara.

Ikerketa baten ondorio

Ibilbideak prozesu baten ondorio dira. 2019an, herriko paisaia-errekurtsoak aztertzea helburu zuen Harriak eta Paisaiak ikerketa hasi zuten. Ondoren, prozesu parte hartzaile bat egin zuten herritarrekin.

Otxandio eta inguruak mendiko bizikletan ezagutzeko aukera dago zapatu honetan

OTXANDIO • J.D.

Gorbeia Euskadik hainbat bisita gidatu antolatu du Gorbeialdeko ingurua ezagutarazteko, eta eurretari bat Otxandion da, zapatu honetan. Mendiko bizikletan egingo dute ibilbidea. 11:00etan ipini dute hitzordua, Otxandioko Plazan. Besteak beste, Presazelaiko pagadien artetik eta Astikurutz izoztegi ondotik igaroko dira.

Izen-ematea www.basque-mountains.com webguneari bitartez egin daiteke. 12 urtetik gorakoentzako 3 euro da; 6tik 12 urtera artekoentzako 1,5 euro, eta doan sei urtetik beherakoentzako. Antolatzaileen esanetan, desnibel gutxi duen ibilbidea da, ordu biko egitekoa.

Kids&Us
school of english

Ingelesa urte letik aurrera

Born to be Me!

Indartu bere potentziala ingelesaren bitartez

Zatoz gu ezagutzera irailan

Kids&Us Durango · Durangoko Plateruen Pl. 8, bajo · 48200 Durango · T. 607 499 516 · durango@kidsandus.es



Gremioen gida

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza



Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza



UNAI GARAY
ITURGINTZA BEROGINTZA GASA

Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Zurgintza



ATEERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!





Ferixa Nausikoetako azokan joan zen domekan aterako irudia.

Sukalki Eguna, Karrozen jaitsiera eta Su Ta Gar, bigarren asteburuko plater nagusiak

Sukalkia zapatu goizean kozinatuko dute, eta arratsaldean karrozen jaitsiera egongo da

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ferixa Nausikoetako lehenengo asteburu arrakastatsuen ostean, elorriarrak prest daude jaietako bigarren astebururako. Asteburuan, jaietako ekitaldirik tradizionalenetariko bat izango dute, Sukalki Eguna. Urte biko etenaren ondoren, Aldatsekua parkeak lehiaketa gastronomiko ezagun hau hartuko du, irailaren 10ean.

Sukalkiaren ondoren, 18:00etan, kuadrillek karrozen jaitsiera egongo dute Aldatsekua-tik. Gauean, 23:00etan, Puro Rela-

jo taldearen eta DJ Gorka Perezen txanda izango da.

Sukalkiaren aurretik, hainbat ekintza izango da. Gaur, esatera-

Gaur, irailak 9, Su Ta Gar eta Ibil Bedi taldeen kontzertuak egongo dira, herriko plazan, 22:30ean

ko, Ibil Bedi eta Su Ta Gar taldeen kontzertuak egongo dira, herriko plazan, 22:30ean. Eta, aurretik, Serenade eta Cuarteto Lírico Argenta

Backstage taldeak egongo dira, jubilatuentzat.

Aurtengo Ferixa Nausikoei amaiera emateko, Munduko Zaporeak ekitaldia egongo da, Kanpokalen, 10:00etan, Kainaberak antolatuta. 13:00etan herri kirolak egongo dira, eta 18:30ean bertso saioa, Aldatsekuan. Saioa Alkaiza, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga eta Gorka Pagonabarraga arituko dira bertotan, eta Ainhoa Urien izango dute gai jartzaile. Eingo taldearen kontzertuagaz eta plazako dantzen emanaldiagaz emango diote amaiera jaiei.

Atxondon pump track ikastaroa emango dute, irailaren 17an

Izena eman beharko da ikastaroan parte hartzeko



Atxondoko pump track zirkuitua.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondon pump track zirkuitua eraiki zuten iaz, eta harrezkero hainbat lagun aritzen da bertan. Hori dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatuta, pump track ikastaroa egongo dute, irailaren 17an, Atxondon. Udaletik jakinarazi dutenez, ikastaroa doakoa izango da. Ikastaroa zati bitan banatuta egongo da. Lehenengo esperientziarik bako lagunentzat edo hasiberrientzat izango da. Eta, bigarrena, hobetu gura dutentzat.

Izen-ematea

Atxondoko Udaletik jakinarazi dutenez, ikastaroa 10 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta aurrez izena ematea derrigorrezkoa izango da parte harte hartu ahal izateko..

Horrez gainera, azaldu dute gutxienez 6 lagunek eman beharko dutela izena pump track ikastaroa emateko, eta taldeak 20 lagunekoak izango direla gehienez.

1.950 bonu abadiñarrentzat komertzioak bultzatzeko

Abadiño Udalak 5, 30 eta 40 euroko deskontu bonuak eskaintzen dabil herriko komertzioak bultzatzeko

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiño Udalak 50.000 euroko balioa duten 1.950 bonu ipini ditu herritarren eskura. Eguaztenean, irailak 7, ipini zuten martxan kanpaina. Bonu hauek herritarren profilaren arabera emango dira, eta diru sarrera txikiagoak dituzten pertsonen deskontu handiagoa izango dute. Horrela, 65 urtetik gorakoentzat 770 bonu berde (30 euroko bonuak) banatuko dituzte, langabezia dauzentzat 600 bonu arrosa (40 euroko bonuak) eta 18tik 65 urtera

bitartekoentzat 580 bonu urdin (5 eurokoak).

Erosketa bonuak irailean zehar banatuko dituzte. Zelaietan, Muntzaraten, Mendiolan, Sagastan, Urkiolan, Gazteluan eta Amaiterrinen bizi direnek udaletxera joan beharko dute bonuak hartzera, goizez, edo Udal Mediatekara, goizez eta arratsaldean. Gererdiagan, Traña-Matienan, Lebarion eta Astolan bizi direnek Matienako udal bulegoetan jaso ahal izango dute bonua, goizez, edo Errota Kultur Etxean, goizez eta arratsaldean.



Lorea Iriondo dendaria eta Iñaki Rekalde zinegotzia.

Trañaetxoste kalea eta eskola ingurua ikasturte berrirako prest

Abadiño Udalaren berbetan, "obra garrantzitsua da, ikasturtean zehar erabilera handia duen kalea" delako

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiño Udalak eskola orduetan Traña-Matienako eskolako jolastokiaren parte den Trañaetxoste kaleko lanak amaitu ditu. Udaletik jakinarazi dutenez, obraren helburua ahalik eta zoladurarik erregularrena sortzea da.

"Obra garrantzitsua da, ikasturtean zehar erabilera handia duen kalea delako, eta, beraz, konponketei ekiteak lehentasuna zuen, zorua segurua eta guztiz irisgarria izan dadin. Lan ona egin da eta aurreikusitako epean amaitu da", azaldu du Javi Crespo alkateordeak.



Trañaetxoste kalea eskolaren parte da.

Martxan da udako argazki lehiaketa.
Igo zure argazkiak
irailaren 16ra arte

UDAKO
8. ARGAZKI
LEHIAKETA

 **anboto**



Durangaldeko 2021eko
argazkia
IRABAZLEA



Durangaldetik kanpoko
2021eko argazkia
IRABAZLEA

2 KATEGORIA, 4 SARI

DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Al Camporen eskutik, bidaiatzeko maleta bat Euskal Herriko produktuz betea.
- Publikoaren saria: Garai landetxean egonaldia.

DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Al Camporen eskutik, bidaiatzeko maleta bat beren markako Gourmet produktuekin.
- Publikoaren saria: tablet bat.

ANTOLATZAILEA

 **anboto**

LAGUNTZAILEAK


Informatika & Telekomunikazioak


DURANGO


Garai Landetxea

Informazio gehiago www.anboto.org webgunean

Zornotzako euskaltegietan matrikulatzeko epea zabalik, "euskararen ikasketa eta erabilera sustatzeko"

Udal Euskaltegian, AEKn eta Barnetegian eman daiteke izena. Askotariko ikasketa ereduak proposatu dituzte

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzan euskara irakasten dabilzan erakunde guztiek agerraldi bateratua egin dute udalagaz batera. Euskara ikasteko matrikulazio kanpaina aurkeztu dute, hizkuntzaren "normalizazioa" bultzatzeko eta "ikaskuntza zein erabilera sustatzeko". Begoña Begiristain Udal Euskaltegiko zuzendariak

dioenez, aurtengo berrikuntza nagusia A1 eta A2 mailetan astean zortzi orduko eskaintza ematea izango da. Horrez gainera, nagusiei, gurasoei eta migratzaileei zuzenduriko ikastaroak ere badituztela nabarmendu du. AEK-k bere ikasketa eskaintza moldagarrian ipini du azpimarra. Igor Landaluze zuzendariaren esanetan, AEKn

"programazio pertsonalizatua" eskainiko dute autoikasketari dagokion atalean. Horrez gainera, ohiko aurrez aurreko klaseak ere izango dituzte. Bestalde, Zornotzako Barnetegiak urtean zehar eskaintzen dituen ikastaro trinko eta jarraituak aurkeztu ditu. Maribi Zubiaga zuzendariak azaldu duenez, neguan astebeteko saioak emango dituzte, egunean 6 orduz, goiz eta arratsalde. Udan 12 egunekoak izango dira, denak jarraian, 8 orduz, goiz eta arratsalde. Zubiagak gaineratu du urtarrilean "Hego hemisferioko 5 ikasle" etorriko direla Barnetegira. Amaia Aurrekoetxeak, Zornotzako Udaleko euskara zinegotziak, udalak euskaragazko duen konpromiso "irra" agertu eta eskerrak eman dizkie hiru eragileei.



Euskara irakasten dabilzan eragileetako ordezkariak eta udal ordezkariak.

Derandain mendi martxaren IV. edizioa egingo dute, domekan, Zornotzan

Zazpi kilometroko ibilaldia izango da. Parte hartzaileek 10:00etan irtengo dute, Jauregibarria parketik



ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Derandain Fundazioak, Zornotzako Udalagaz lankidetzan, Derandain mendi martxaren IV. edizioa antolatu du. Ibilaldia domekan izango da, Zornotzako lurretan zehar. Parte hartzaileek 10:00etan irtengo dute, Jauregibarriako parketik. Honako hau da egingo duten ibilbidea: Zubipunte, Derandain, Urumin, Arrinda, Etxano, Epaltzako bidea, Urritxe, Jauregibarria. Zazpi kilometroko ibilbidea izango da guztira. Martxa amaitutakoan, pintxo-potea eta trikitixa izango dituzte zain, 13:00etan. Bertan

parte hartzeko, mezu bat bidali beharko da derandain@derandain.org helbidera. Bestela, egunean bertan ibilbidearen irteera puntuan ere eman ahal izango da izena, 9:30ean.

Erakusketa ere bai

Ibilidean zehar *Afrika*, *emakume izenarekin* erakusketa egongo da ikusgai. Ibiltariak Afrikako emakumeen egoerari buruzko informazioa eskuratu ahal izango dute ibilbideko paneletan. Erakusketak hainbat eremu landuko du, hala nola hezkuntza, osasuna eta ekonomia.

Berrurbanizatu ondoren, lurretako Maspe kaleak itxura berria hartu du

Erdibitzaile zentral berde bat, argiteria eraginkorragoa eta arbola berriak ipini dituzte; lurretako Udalak nabarmendu du kalea "atseginagoa" eta "irisgarriagoa" bihurtu dela

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Maspe kalean 84 etxebizitza eraiki dituztela aprobetxatuta, kale zati bat berrurbanizatu egin dute. Erdibitzaile zentral berde bat ipini dute, argiteria eraginkorragoa, eta arbola berriak. Kaleak espalo zabalagoak ditu berrurbanizazio lanen ondoren, eta zebrabide goratu bat gehiago. Orain Maspe kalea herritarrentzat "atseginagoa" eta "irisgarriagoa" dela dio udalak. Bide horretan, autobus geltokiak berrituz dituzte. "Gardenagoak dira eta argiztapena zaintzen dute itzalguneak saihesteko", esan dute. Etxebizitzaren inguruko berrurbanizazioa urte amaieran amaitzea gura dute.



Erdibitzaile zentral berde bat eta argiteria eraginkorragoa ipini dituzte.

Urte biko etenaren ondoren, lurretako kofradiek Laixiar Eguna ospatuko dute

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako kofradiek 47. Laixiar Eguna ospatuko dute, domekan, Laixiarren. Sei kofradiek (San Marko, Fauste, Goiuri, Santa Maña, Iurreta eta Orozketa) hiru urteotako kontuen berri emango dute. Diru kontuak eta urte hauetan egindakoak azalduko dituzte Kofradien Batzar Nagusian, eta etorkizunera begira dituzten erroka eta asmoak. Batzarra 12:00etako meza amaitu ondoren hasiko da.

Bazkalordua heldu baino lehenago, dantzari eta bertsolarien txanda izango da, eta arratsaldean musika eta jolasak egongo dira. Aurten edalontzi berrerrabilgarriak banatuko dituzte.

Garain bigarren gimnasia talde bat sortzeko asmoak ez du aurrera egin

GARAI • EKAITZ HERRERA

Ahalegindu dira, baina ez da posible izan. Garaiko nagusien elkarteak gimnasia eta luzaketak lantzeko bigarren talde bat sortu gura zuen, baina lagun gutxi eman dute izena eta albo batera utzi behar izan dute talde berria. Hori bai, betiko taldeak, otsail-martxotik hona martxan egon den taldeak, aurrera jarraituko du. Izan ere, eguaztenero dozena bat garaitar baino gehiago batzen dira kultur etxean, ariketa fisikoa egin eta sasoko egoteko. Nagusien elkartetik adierazi dute "pozarren" dardela begiraleagaz. Bestalde, elkarteak jakinarazi du aurrera begirako asmo gehiago dutela esku artean.

Domekan frankismoaren biktimak omenduko dituzte Berrizen, urteroko lore eskaintza eta ekitaldian

Irailaren 11n egingo dute frankismo garaiko biktimak gogoratzeko ekitaldia, 11:30ean, Felipe Urtiaga plazan; gero, 'Gutun bat Saturraranera' bertso trama egingo dute. Katarainek, Ibarzabalek, Basagoitik eta Alkaizak egingo dute bertsoan



lazko ekitaldiko irudi bat.

BERRIZ • A. M.

Urtero lez, irailaren 11 heltzeagaz batera Berrizko Udalak eta Berriz 1936 Gogoratzen kultur elkarteak frankismoaren biktimak omentzeko ekitaldia antolatu dute. "Udale-riarentzat data esanguratsua da irailaren 11", azaldu dute. Aurtengo ekitaldia domekan izango da. 85 urte beteko dira, hain zuzen ere, Felipe Urtiaga eta José Agirre berriztarrak Derioko (Bizkaia) hilerrian fusilatu zituztenetik; urte bereko abuztuaren Gregorio Urkijo fusilatu zuten, eta, urte batzuk geroago, frankistek Fermin Aranguren hil zuten, Asturiasen (Espainia). Horiek eta frankismoaren biktima guztiak omentzea da ekitaldiaren helburua, udalak prentsa ohar batean adierazitakoaren arabera.

Ekitaldian dantzariak eta udaleko ordezkariak parte hartuko dute, eta zuzeneko musika ere egongo da; lore eskaintza ere egingo dute, urtero lez.

85 urte beteko dira Felipe Urtiaga eta José Agirre berriztarrak Derioko hilerrian fusilatu zituztenetik

Ekitaldiaren ondoren, 12:15ean, bertso trama egingo dute, kultur etxean: *Gutun bat Saturraranera*. Araitx Katarainek, Nerea Ibarzabalek, Irune Basagoitik eta Saioa Alkaizak egingo dute bertsoan; Ibarzabal eta Alkaiza Bizkaiko eta Nafarroako azken bertso txapelketako irabazleak dira, hurrenez hurren. Miren Amuriza eta Idoia Barceló berriztarrek ipiniko dituzte gaiak. Amaitzeko, bertaratzen direnek luntxa izango dute, koronabirusaren agerpenaren aurretik egiten zen lez.

Zaldibarko I. Zaldi Martxa egingo dute zapatuan, egun osoko egitarauagaz

Antolatzaileek egun osoko egitaraua prestatu dute; zaldi martxa eta ranch trail eguneko ekitaldi nagusietariko bi dira

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibarren zaldi martxa egingo dute zapatuan, lehenengoz, eta antolatzaileek egun osoko egitaraua prestatu dute. 09:00etan harrera egingo zaie zaldiei, eta, horren ostean, martxa egingo dute; 13:30 inguruan amaitzea aurreikusten dute antolatzaileek, eta ibilbidean haiketakorako tartea ere hartuko dute. Herrian poneyak egingo dira txikiaren gozamenarako (12:00-14:00). Martxako partaideek bazkaria egingo dute, 15:00etan. Jarduera guztiak Olazarren egingo dituzte.

Arratsaldean, eguneko ekitaldirik garrantzitsuenetariko bat izango dute. 16:30etik 19:00era bitartean, ranch trail erakustaldia egingo da. Ikuskizun hauetan, zaldizkoek eta zaldiek ibilbide bat bete behar dute, zenbait oztopo gaindituta. Gero, sari banaketa egingo dute.

Egunean zehar, zeramikarien eta ferratzaileen erakusketa ere egingo da ikusgai. Zaldibarren halako martxa bat antolatzen duten lehenengo aldia da aurtengo.



Ekitaldiak Olazarren izango dira.

IK Iurreta
kopistegia

IMPRESIO DIGITALA
DISEINU GRAFIKOA

ESKOLA MATERIALEAN
ESKANTZA ZABALA

Bidebarrieta, 1 · 48215 IURRETA
T: 946 811 070 · info@iurretakopi.com

SOINUA MUSIKA IKASTEGIA
Matrikula zabalik!

Estimulazio musikala
4 urtetik aurrera eta talde txikietan

PIANOA, AKORDEOIA, TRIKITIA,
GITARRA, KORUA



Kalebarrria, 1 - 1 Durango
946 030 338 - soinuia@euskalnet.net

ANBOTOren argazki lehiaketan irailaren 16ra arte parte hartu daiteke

Parte hartzeko, argazkiak 688 635 041 zenbakira bidali daitezke, whatsapppe

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Irakurleen argazkilari senari bidea emateko asmoz, ANBOTOk udako argazki lehiaketa antolatzeari ekin zion orain zortzi urte, eta aurtengoa amaitzear da dagoeneko. Lehiaketan parte hartu gura duten herritarrek irailaren 16ra arte dute aukera argazkiak www.anboto.org webgunean ipintzeko edo whatsapp bidez 688 635 041 zenbakira bidaltzeko.

Lehiaketan parte hartu gura duenak lau argazki aurkeztu ahal



Durangaldeko 2021eko argazki irabazlea.

izango ditu gehienez, kategoria bakoitzeko bi, eta aurretik beste lehiaketetan saritu bakoak izan beharko dute.

Sariei dagokienez, lau sari egongo dira. Durangaldeko argazkirik onenak atalean, epaimahaiaren saria irabazten duenak bidaiatzeko maleta bat eskuratuko du, Euskal Herriko produktuez betea, Al Camporen eskutik. Durangaldetik kanpoko argazkirik onenak ere bidaiatzeko maleta bat eskuratuko du, baina Gourmet produktuekin betea. Publikoaren sariari dagokionez, Durangaldeko argazkirik bozkatuena egonaldi bat irabaziko du Garaiko landetxean. Durangaldetik kanpoko argazkirik bozkatuena Databostek emandako tablet bat eskuratuko du.

Politikan

Jesica Ruiz
Perez
PSE-EE



Udazkena itzaroten

Gogoratzen dugun udarik be-roenetako bati agur esaten ari gara. Udako hilabete hauetan etengabe errepikatu digute udazken gogorra datorkigula. Hau, apartamentu eta hotelen, gasolinaren eta eguneroko beharrianen prezio igoerarekin egiaztatu ahal izan dugu, besteak beste. Hala eta guztiz ere, Durango, iazko abuztuan bezala, hutsik geratu da. Alderantziz, turismoari buruzko datuek diotenez, gune turistikoetan zaila izan da bazkaltzeko edo afaltzeko mahai bat aurkitzea edo apartamentu, landetxe edo hotela lortzea. Argi dago azken bi urteetan pandemiarekin igarotakoaren ondoren oporretarako gogo zegoela.

Datozen hileei hobeto aurre egin ahal izateko, Madrilgo Gobernuak salbuespenezko hainbat neurri jarri ditu abian, hala nola: gasolina litroko 20 zentimo merketzea, garraio publikoaren %50eko hobaria, edo gasaren BEZa %21etik %5era jaitea, Espainiak eta Portugalek Europan hainbeste borrokatutako salbuespen iberikoaz gain. Bestalde, hauek dira ezarriko dituzten zerga berriak: bankuei salbuespenezko eta aldi baterako zerga jartzea edo energia-enpresen aparteko irabaziei zerga berria ezartzea.

Izan ere, datorkigun krisiari aurre egin ahal izateko, 2008an bezala egin daiteke, bankuei dirua sartuz, edo, kasu honetan bezala, familiak arintzeko neurriak ezarriz. Inflazioa hain handia izanik, lehentasuna ahulenei, familiei eta enpresa txiki eta er-tainei laguntzea izan behar litzateke, horiek baitira, beti bezala, gehien sufrituko dutenak.

Durangaldea asteen

Ezkurdiko frontoiko energiaren %31 eguzki energiagaz hornituko da

DURANGO | Aurtengo apirilean frontoia berritzen hasi ziren eta, obra horien harira, udalak jakinarazi du 40 eguzki plaka ipiniko dituztela teiltuan. "Etokizuneko instalazioen efizientzia eta jasangarritasun energetikoa hobetuko dugu horrela", azaldu dute. Horrez gainera, esan dute energia horregaz frontoian kontsumituko denaren %31 hornituko dutela.

Durango Kirolakek jarduera guztiak doan probatzeko aukera emango du irailean

DURANGO | Ikasturte berria heltzeagaz batera, Durango Kirolakek bere instalazio eta jarduerak doan probatzeko aukera emango du irail osoan zehar. Interesa dueneak proba bat eskatu dezake, jarduera eta ordutegia adierazita. Horretarako, 618 65 60 73 zenbakira whatsapp mezu bat bidali edota Landako I edo II kiroldegietako harreretan eskatu beharko da.

Kirol instalazioen kudeaketa zerbitzuaren lizitazioarako agiriak onartu dituzte Elorrioren

ELORRIO | Elorrioko kirol instalazioen kudeaketak lau urteko iraupena zuen. Laster da amaitzear eta Elorrioko Udalak agiri berriak onartu ditu. Udaletik azaldu dutenez lizitazio berria 2023ko urtarilaren 1ean sartuko da indarrean eta 3 urteko iraupena izango du. Urte bi luzatzeko aukera egongo da.



L'Atelier eskolako dantzariak 13 sari lortu dituzte 'Vive tu sueño' lehiaketako finalean

DURANGO | Asteburuan 'Vive tu sueño' lehiaketako finala jokatu da Parisen (Frantzia), Europako finala. Bertan, Durangoko L'Atelier eskolako 56 ikaslek parte hartu dute eta emaitza ezin hobekak eskuratu dituzte. Oiana Azconzagaren dantzariak 13 sari lortu dituzte guztira. "Txapelketa hau ez dugu inoiz ere ahaztuko. Ikasleek maila guztietan irabazi dituzte sariak, eta, gainera, gure dantza eskola mailarik altuenean geratu da beste behin ere", azaldu du Azconzagak.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...




Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

#salduenak




MUNDUARI BIRA EMAN ZION ONTZIA
Joseba Sarrionandia / Ares (Pamiela)




M, AMA, EME, UME
Erika Lagoma / Estibx Fernandez (Elkar)



ERMITAK BIDE, DURANGALDEA BIZI
Ramon Castillo / Ibon Murua (Alpino Tabira)



AZKEN ETXEA
Arantxa Urretabizkaia (Pamiela)



UHARTE BELTZA
Herge (Zephyrum)



— ESAERA ZAHARRA —

Ordenatu berbak esaera zahar hau zein den jakiteko.

An illustration of a woman with long dark hair, wearing a red t-shirt, holding a pointer stick. She is standing in front of a whiteboard. The whiteboard contains several words in bold, black, sans-serif font, arranged in a non-sequential order: GERO, ALFERRIK, PRESA, URA, EGITEA, ETA, JOAN, and DA. Below the whiteboard, there are two horizontal red lines for writing the correct order of the words.

GERO

ALFERRIK

PRESA

URA

EGITEA

ETA

JOAN

DA

ZER ORDU DA?

Ipini dagokion ordua erloju arruntean zein digitalean.



ASMAKIZUNA

Bidaiatik etorri eta maleta ezin zabaldu zabilta, kandaduaren zenbakia ahaztuta. Eskerrak beheko pista hauek dauzkazula:


- Aitaren jaiotza urtea da.
- Aitak amak baino 3 urte gehiago ditu.
- Izeba Ana 1962an jaio zen.
- Amak eta izeba Anak 4 urteren aldea dute.
- Ama izeba Ana baino gazteagoa da.



ANTZARA -JOKOA

Moztu beheko fitxa koloredunak eta hasierako kutxan ipini.
Dado bat eta beste hiru lagun topatu behar dituzu.

HASIERA



AMAIERA



Paella eta tortilla txapelketa

JAIK ABADIÑO :: Irailak 9tik 11ra

Jai giroa nagusituko da, asteburuan, Abadiñoko Muntzaratz auzoan

Donien Atxa jasotzeagaz batera jai giroan murgilduko dira, gaur, Abadiñoko Muntzaratz auzokoak. Domekan jaiak agurtu arte, makina bat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute auzokoei zein bertaratuko diren. Besteak beste, gaur, herriko Talde Batuak dantza taldeak saioa egingo du, 19:15ean hasita. Eta, ondoren, Hazi Fundazioaren eskutik antolatutako parrillada hasiko dute, 20:00etan. Gauerdian, Karne Cruda

eta Eutsi taldeek kontzertua joko dute.

Biharko, ibilgailu klasikoekin kontzentrazioa eta paella eta tortilla txapelketak antolatu dituzte. Umeen-tzat hainbat jolas eta tailer ere egongo da egun osoan zehar. Iluntzean, bestalde, su ikuskizuna egongo da. Domekarako, herri kirolen saioa eta auzo bazkaria antolatu dituzte; baita umeentzako disko festa eta txokolatada ere.

Irailaren 9a

ABADIÑO Muntzaratzeko jaiak
Donien Atxa jasotzea, 19:00etan.
Talde Batuak dantza taldea 19:15ean.
Makrodisko: Sound 4, 20:00etan.
Paella eta tortilla txapelketarako izen ematea, 20:00etan.
Parrillada, 20:30ean.
Karne Cruda + Eutsi!, gauerdian.

BERRIZ antzerkia
'Aukerak' (The Fune Troup), 16:30ean, eskolako patioan.

DURANGO Ibaizabaleko jaiak
Umeentzako ekintzak, 18:00etan.
Txupinazoa, 19:00etan.
Pintxo pote herrikoa trikitilariekin, 19:00etan.
Diskoak ipintzea, 21:30ean

ELORRIO jaiak
Elorrio zirkularra, 09:30ean.
Hildako jubilatuen omenezko meza, 11:30ean, Sortzez Garbiaren basilikan.
Kopaua Elorrioko jubilatuentzat, 13:00etan.
Elorriko buruhandiak, 18:00etan.
Dantzaldia: Serenade taldea, 18:00etan.
Lagunarteko partidua (mutilak), 19:00etan, errugbi zelaietan.
Gazte Uhartea: freestyle Bike Show eta erraldoiak,

19:00etan, Ganondo parkean.
'La punta de mi nariz' (Konika kolektiboa), 19:00etan.
Argenta Backstage laukote lirikoa, 19:30ean.
LVI. Idi Proba Txapelketa, 21:00etan.
Suzko zezena, 22:15ean.
Ibil Bedi + Su Ta Gar, 22:30ean, plazan. Txosnaguneak antolatuta.

IZURTZA jaiak
Gertufest, 17:00etan, Santo Tomas parkean.

Irailaren 10ean

ABADIÑO Muntzaratzeko jaiak
Mahai eta aulkien banaketa, 10:30ean.
Ibilgailu klasikoekin kontzentrazioa, 10:30ean.
Umeentzako entzierroa, 11:00etan.
Puzgarriak eta mozorro lehiaketarako izena ematea, 12:00etan.
Paellen aurkezpena eta sari banaketa, 14:00etan.
Apar jaiak eta txirrista irristakorra, 16:00etan.
Sokatira (Holandako mundialerako euskal selekzioaren azken antrenamendua), 17:00etan, txopoaren alboan.
Tailerrak + aurpegiak margotzea, 18:00etan.
Ugasio txapelketa, 18:00etan, txosnan.
Nagusientzako dantza, 18:30ean.
Tortillen aurkezpena eta sari banaketa, 20:00etan.

Su ikuskizuna, 21:15ean.
Disko festa: Fuente de Sonido, 22:00etan.
Dani Borge eta Cristian Piornedo DJak, 01:00etan.

DURANGO dantza
Dantzaroa, 19:00etan, Ezkurdin.

DURANGO Ibaizabaleko jaiak
Jolas puzgarriak, 11:00etan.
Patinete lasterketa, 11:30etan.
Umeentzako sushi tailerra, 12:00etan.
Marmitako txapelketa, 13:00etan.
Gazta zozketa, 14:00etan.
Marmitakoa aurkeztea eta dastatzea, 15:00etan.
Mus txapelketa, 16:30ean.
Txaranga: Debrass Band, 19:00etan.
Hache + Penny Fleck + Lemak, 21:30ean.
Dj Eka Ramirez & Zeni, 00:30etan.

ELORRIO jaiak
Sukalki eguna, 08:00etan.
Haur parkea eta Txu-Txu trenak (12:00-14:00/17:00-20:00).
Fanfarrixo kalejira, 12:30ean, Aldatsekuatik irtenda.
Apar jaiak, 13:00etan, Aldapebeitia jauregiaren atzeko parkean.
Sound disko festa, 15:00etan, Aldatsekuan.
Txokolatada, 18:00etan.
Karrozen jaitziera, 18:00etan, Aldatsekuan.
Disko festa, 18:00etatik 21:00etara.
LVI. Idi proba txapelketa, 21:00etan.
Suzko zezena, 22:15ean.
Correfoc Calacas-egaz kalejira, 22:30ean, erdigunetik.

Puro Relajo, 23:00etan.
Dj Gorka Perez, 23:00etan.

IZURTZA jaiak
Tortilla txapelketa, 19:00etan.
Aurkezpena, 20:30ean.
Afari herrikoa, 21:30ean.
Luhartz, 22:30ean.

ZORNOTZA musika
Neomak, 20:00etan, Etxanoko Andra Maria elizan.

Irailaren 11n

ABADIÑO Muntzaratzeko jaiak
Herri kirolak, 11:00etan.
Mahai-teniseko jolasak, 12:00etan.
Auzo bazkaria (maleta siku), 14:30ean.
Disko festa: Arima, 18:00etan.
Txokolatada, 19:00etan.

ELORRIO jaiak
Kanpokale Munduko zaporeak, 10:00etan.
Herri Kirolak: Udane Ostolaza, Nerea Egurrola, Hodei Ezpeleta, Julen Mendieta, Iritz Gisasola eta Bihurri, 13:00etan.
Bertso saioa: Saioa Alkaiza, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga eta Gorka Pagonabarraga, 18:30ean, Aldatsekuan. Gai jartzailea: Ainhoa Urien.
Eingo taldea eta Plazako Dantzen emanaldia, 19:30ean.

IZURTZA jaiak
Jaizalegatz kalejira, 10:00etan.
Lopene eta abereak, 12:00etan.
Igel txapelketa, 13:30ean.
Jubilatu bazkaria, 14:30ean.
Mus txapelketa, 17:30ean, Argintxu elkarteetan.

Zinema

:: **Durango ZUGAZA ZINEMA**
• **Viaje al paraíso**
barikua 9: 19:15 / 21:30
zapatua 10: 16:45 / 19:15 / 21:30
domeka 11: 16:45 / 19:30
astelehena 12: 18:00 / 20:15
martitzena 13: 18:00 / 20:15
eguzkena 14: 19:00

• **El acusado**
barikua 9: 20:00
zapatua 10: 19:00 / 21:30
domeka 11: 19:30
astelehena 12: 19:00
martitzena 13: 19:00
eguzkena 14: 19:00

• **¿Y esto... de quién es?**
barikua 9: 19:15 / 21:30
zapatua 10: 19:15 / 21:30
domeka 11: 19:30
astelehena 12: 18:00 / 20:15
martitzena 13: 18:00 / 20:15
eguzkena 14: 19:00

• **El colegio de los animales mágicos**
zapatua 10: 16:45
domeka 11: 16:45
• **Tadeo Jones 3: La tabla esmeralda**
zapatua 10: 17:00
domeka 11: 17:00

:: **Zornotza ZORNOTZA ARETOA**
• **Con canas y a lo loco**
barikua 9: 20:00
zapatua 10: 20:00
domeka 11: 20:00
astelehena 12: 20:15

• **Las nuevas aventuras de Gulliver**
zapatua 10: 17:00
domeka 11: 17:00



Okm: *batzen gaituen* *distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

▶ anboto
kide

“Gaur egun, musikan, soinuari ematen zaio garrantzia, baina begiekin ere asko jasotzen da”

Neomakek kontzertua emango du, zapatuan, Eleizetan jaialdiaren barruan, Etxanoko Andra Marian; 20:00etan hasiko da



ANTONIO KAJOI

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Neomak taldeko kideek trikitixa eta pandero txapelketetan parte hartuta elkar ezagutu zuten. 'Kepa Junkera eta sorginak' proiektuan parte hartu eta gero, euren biderei ekitea erabaki dute; doinu tradizionalak gaur egungo ikutu batez jotzen dituzte. Alaitz Eskudero, Amets Ormaetxeak, Eneritz Aulestiak, Leire Etxezarretak, Maria Lasak, Irati Gutierrezek eta Garazi Otaegik osatzen dute taldea; azken honez berba egin du ANBOTOK.

Irailean hainbat kontzertu egingo duzue diskoa aurkezteko. Aurretik, kontzertu dezente eman duzue udan. Zelan joan dira?

Kontzertuen formatu honez maiztean hasi ginen, eta kontzertu dezente eman dugu. Nahiko talde berria gara eta harrera ona izan dugu, ezin gara kexatu. Ez dakit lotura egin daitekeen, baina trikitixaren munduko tradizioz gatozenez jendeak zerbait konkretua espero dezake, eta hor sorpresa emateko aukera dugu. Udako kontzertuetan, adibidez, gehien errepikatu diguten gauzatariko bat 'ez nuen horrelakorik espero' izan da. Zazpi emakume igotzen gara taulara, betidanik panderoari lotuta egon gara eta hortxe dator sorpresa; hain zuzen ere, horixe egin gura genuen. Trikitixaren mundua

oso estereotipatuta dago, eta, egia esan, oso gustura gabiltza aldaketa hori aldarrikatzen. Kontzertu dezente emateko gai izan gara, eta taldekideok oso eskertuta gaude.

Trikitixa eta pandero txapelketetan elkar ezagutu zenuten, baina trikitixatik eta panderotik harago doa Neomak. Berritasun hori izan da erronkarik handiena zuentzak?

Bai, hori da. Guk ere nahita bilatu dugun zerbait da. Denok genuen gogoia hortik irten eta arriskatzeko, beti ikusi izan dugun horregaz apurtzeko gogoia. Zazpi kide gara eta ez dugu trikitixa bakarrik entzuten. Estilo desberdinak entzuten ditugu eta

gu geu ere desberdinak gara, eta apurtzeko gogo horren aldeko apustua egin dugu elkarregaz. Gu pozik gaude egin dugunagaz eta egiten gabiltzanagaz, eta gogotsu gaude erantzuna zelakoa den ikusteko. Orain artekoa behintzat oso ona izan da.

Udaberrian diskoa grabatu zenuten. Martxoan ibili ginen grabatzen, eta orain aurkeztuko dugu, iraillean. Hainbeste denboran zain egon eta gero gogotsu gaude jendearen erantzuna jasotzeko. Aurrerapen kanta bi publikatu ditugu, eta esango nuke kanta bi horiekin zer egiten dugun sumatzeko arrastoa utzi dugula. Gogo handia dugu jendeak

diskoa entzun dezan, eta, gero, diskoari buruz duten iritzia jaso gura dugu, iritzi ona zein txarra izan. Horrek errespetua ematen du, baina, aldi berean, hainbeste denbora eskaini diogun proiektu batek zelako erantzuna izango duen jakiteko gogotsu gaude.

Diskoko abestiak jotzen ibili zarete? Azkenaldiko kontzertuetara etorri direnek abesti horiek entzuteko aukera izan dute. Asteburuko kontzertura datorrenak ere entzun ahal izango ditu diskoan egongo diren kanta horiek.

Irudiari ere garrantzi handia ematen diozue. Gure leloa tradizioa eta garaikidea da, eta estetikagaz ere berdinegite dugu. Urte askoan trikitilari edo panderojoleen irudi konkretu bat zabaldu izan da; salbuespenak salbuespen, beti lotu izan da estetika konkretu batez, eta emakumea ere rol batean enkajatu da. Ados gauden gauza tradizionalak mantendu,

Urte askoan trikitilari edo panderojoleen irudi konkretu bat zabaldu izan da; beti lotu izan da estetika konkretu batez

eta besteekin zelanbaiteko iraultza estetiko bat planteatu gura izan dugu. Ez dugu esan gura lehenengoak izan garenik hau egiten. Adibidez, kontzertuetan, baserri giroko mahoizko prakak jantzi izan dira betidanik; guk urrezko harribitxiak eta orrazkera bitxia daramatzagu. Gaur egun, musikan, soinuari ematen zaio garrantzia, baina begiekin ere asko jasotzen da. Entzutera ez ezik, kontzertua ikustera ere bazoaz, eta guk ere horrela egiten dugu. Estetikoki, argiak, egiturak, formek, mugimenduak, kontzertuetako horrek guzti horrek du indarra, eta musikalki indarra duena estetikoki ere indartuz gero, oso gauza polita egiten da, eta atentzioa emateko aukera eskaintzen du. Horregaitik ematen diogu garrantzia irudiari ere.



**Durangaldekua bazara,
57. Durangoko Azokan
parte hartu DOAN**

946818066
gerediaga@durangokoazoka.eus



DA!

Eduardo Martinezen argazki erakusketa ikusgai dago Zelaietan

'Solo personal autorizado' erakusketa irailaren 30era arte egongo da ikusgai Zornotzan



Eduardo Martínez.

ARGAZKILARITZA • A. M.

Eduardo Martínez argazkilari bilbotarraren bakarkako lehenengo erakusketa Zornotzako Zelaietan erakutsiko dute, irailean zehar. Eguaztenean zabaldu zituen atea, eta hilaren 30era bitartean egongo da ikusgai. "Gizakiaren unerik konplexuenetara hurbiltzeko modu bat bilatzen dut, zelabait saihestezinak direnak, garai horretako zeharkaldia irudietan jarriz, geratzen zaigun denborari buruzko zalantza azaleratuz", azaldu du Martinezek. Hain zuzen ere, *Solo personal autorizado* erakusketan oroitzapenez, familiaz, lagu-

Erakusketak eguaztenean zabaldu zituen atea, eta hilaren 30era bitartean egongo da ikusgai

nez eta "aldi baterako sentsazioez" hausnarketa egitera gonbidatu gura du bisitaria egile bilbotarrak. "Egile lez dudana begirada, ibilbide bisual honen bitartez, emozio eta sentimendu komunak eleberri bat osatzen ahalegintzen da argazkigintzaren bitartez. Oroitzapena, beldurra eta ziurgabetasuna lantzen ditut, irudiak behatzen irudiekin etengabeko elkarrizketan,

irudiak ikustean galderak sortuz, ikusleak berak bilatu ditzen erantzunak", azaldu du.

Aurretik, Bilboko Biran, Santutxun, Begoñan eta Basaurin erakutsi ditu bere lanak.

Bakarkako lehenengoa

Ibilbide pertsonalean beste urrats bat eman du Martinezek; batez ere, argazkigintza garaikidean oinarritzen da bere ibilbidea, eta orain artean hainbat erakusketa kolektibotan parte hartu du; besteak beste, Sestaon, Sobre alguien, sobre algo, sobre algún lugar erakusketan.

San Agustin kulturguneko programazioa aurkeztu dute

24 emanaldi egongo dira, irailaren 15ean hasi eta abenduaren 30era bitartean; Las Paralelas konpainiaren 'Miss Spein' ikuskizuna izango da lehenengoa

ANTZERKIGINTZA • A. M.

Las Paralelas konpainiako kide den Aroa Blanco durangarraren Miss Spein emanaldiagaz ekingo dio Durangoko San Agustin kulturgunek udazkeneko zikloari. Hemezortzi konpainiak 24 emanaldi egongo dituzte guztira, abenduaren 30era bitartean. Besteak beste, Yllanaren *Greenpiss eta* Tanttakaren *Sexberdinak* izango dira bertan. Horiez gainera, 'Durango Sor(tzaileen)leku' beka jaso duten hiru proiektu ere aurkeztuko dituzte: Mainer Lopezek (Khontaria

taldea) diziplina askotariko emanaldia, Egoitz Etxebarriak (Amantra taldea) musika proiektua, eta Ganso & Ciak umeentzako antzerki ikuskizuna.

Bazkide kanpaina

Programazioa aurkezteaz gainera, San Agustineko koordinatzailea den Arantza Arrazolak bazkide egiteko deialdia ere egin du. 25 eurokoa da urteko kuota, eta bazkideek %25eko deskontua izango dute emanaldietan.



'Sexberdinak', Telmo Irureta eta Aitziber Garmendia.

Gai librean

Inbentarioa

Uda honetan bederatzi liburu erosi ditut. Egin diet bisita bana Ana Malagon, Lucía Lijtmaer, Kirmen Uribe, Katixa Agirre, Andrea Abreu, Estitxu Fernandez eta Erika Lagomari. Zeharkatu naute amek, emeek eta umeek. Isuri ditut litroka malkoak begietatik eta egin dut negar hainbatetan alutik. Igo ditut bost mendi eta lapurtu dizkiot lore bat edo beste amalurrari.

Hamazazpi muxu eman dizkiet aspaldian ukitu bako ezpainei, eta josi dizkiot hamabi bandana, bi kulero eta hiru manta oraindik munduratu ez den ume bati. Ikusi ditut Lukiek, Ibil Bedi, Ezpalak, Nathy Peluso, Merina Gris, eta Iheskide. Ez, ez dut Rosalia ikusi; baina bai, Motomami bat naiz. Beste behin, furgonetan Pirieta joan den "Real Euskal Motomami" bat.



Miren Erdoiza Mujika
Irakaslea

Mozkorraldiak, hartutako kiloak, manifak, ziztadak, maitemintzeak: zero. Kontu korrontea ez dut begiratu oraindik

Isuri ditut litroka malkoak begietatik eta egin dut negar hainbatetan alutik

Mozkorraldiak, hartutako kiloak, manifak, ziztadak, maitemintzeak: zero. Kontu korrontea ez dut begiratu oraindik.

Min hartu dut, baina ez dakit zenbat alditan.

Turnoak Hatortxun, Txori Barroten, Lekeition... erosiko nituen hiruzpalau plastikozko edalontzi guztira, eta kontua galdu dut zenbatetan garbitu ditudan zapatilak parranda ostean.

Ireki dut instagrama milioi bat eta erdi bider, jarriko nituen hamabost bat garbigailu. Kalkulatzen dut hogei bat afari egongo nituela Intxaurren. Begiratu naiz mila eta bat aldiz ispiluaren aurrean, eta sarritan aldatu dut arropa bizpahiru bider, etxetik irten baino lehen. 28 urte bete nituen abuztuan eta birritan egin nien putz kandelei egun hartan. Bikini bi eta bainujantzi bat erosi nituen ekainean, zenbaezinak diren fruta-piezak erosi ditut baita, eta oparitu dizkidate munduko tomaterik ederrenak. Lehengusina txikiari bospasei aldiz egin diot errieta, eta hiru aldiz egin diet paella lagunei. Enteratu naiz hamarnaka txutxumutxurekin, eta ohartu naiz inoiz, denak ez direla egia izan. Ez dut lagun berririk egin, ezagutu dut jendea, baina ezin diet lagun izenez deitu.

Zutabe bat idatzi dut Anboton, eta udakoa gauzatuta, jarri naiz jada udazkenari so.

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Etorkizuneko pilotarien Cafés Baqué txapelketaren XXXV. edizioa gaur hasiko da, aspaldiko urteetako karteldegirik erakargarriena. 35 urteko bidean, txapelketak denerik ezagutu du. Urte askoan, erreferenteetariko bat izan zen gazte mailetako txapelketen artean. Gerora, oihartzuna galdu zuen eta zortzi bat urtean Bizkaiko pilotariekin baino ez dira aritu. Orain, urte biko parentesitik bueltan, sasoi bateko sona berreskuratzeko ahaleginduko dira. Txapelketa Bizkaitik kanpora zabaltzeko baina gehiago egin dute: Gipuzkoako, Arabako, Nafarroako eta Errioxako txapelketetako txapeldun eta azpitxapeldunak gonbidatu dituzte txapelketara.

Txapelketa buruz buru jokatu da, maila bitan: kadeteetan eta gazteetan. Maila bakoitzean 16 pilotari arituko dira, euretariko erdiak bizkaitarrak.

Jardunaldiak

Txapelketak sei jardunaldi ditu eta euretariko bi aste honetan jokatu dira. Hurrengo laurak datozen aste bietako eguazten eta egugetan izango dira: irailaren 14an Abadiñon, 15ean Mañarian, 21ean Iurretan, eta 22an Traña-Matienan. Jardunaldi bakoitzean gazte eta kadete mailako partidu bana jokatu da, 18:45ean hasita.

Maila bakoitzeko lau pilotaririk onenek irailaren 29an jokatu dituzte finalerdiak, Traña-Matienako pilotalekuan. Txapelak Iurretako Olaburu pilotalekuan banatuko dituzte, urriaren 7ko finalean.

Cafés Baqué txapelketak sasoi bateko sona berreskuratu gura du gazterik onenak gonbidatuta

Bizkaiko pilotariek gainera, Gipuzkoako, Arabako, Nafarroako eta Errioxako txapeldunak eta txapeldunordeak gonbidatu dituzte



Antolatzaileak, babesleak eta udaletako ordezkariak txapelketako aurkezpenean.

Enaitz Olaetak, Bizkaiko Euskal Pilota Federazioko lehendakariak, txapelketak indarberritzeko egin duen ahalegina azpimarratu zuen aurkezpen ekitaldian: "Aukera parega-

Enaitz Olaeta: "Aukera paregabea da Bizkaiko pilotariei mailarik altueneko partiduak eskaintzeko"

bea da Bizkaiko gure pilotariei mailarik altueneko partiduak eskaintzeko". Horrez gainera, esker oneko berbak izan zituen txapelketako babesle nagusia den Cafés Baquerentzat, ematen

dien laguntzagaitik: "Urte biko geldiene behartu honen ostean, ezinezkoa litzateke aurrera egitea Cafés Baquek gure kirolaren alde egiten duen apustu hau barik".

Asier Agirre azpitxapeldun geratu da maratoni erdian munduko txapelketan

Distantzia horretan bere inoizko posturik onena berdindu du, Portugalen; 2015ean ere azpitxapeldun geratu zen



Asier Agirre podiumeko ezkerreko aldean, Portugalen.

KORRIKA • J.D.

Joan zen asteburuan Virtus maratoni erdian munduko txapelketa lehiatu zen Portugalgo Viseu herrian, eta Asier Agirre (Durango, 1989) azpitxapeldun geratu zen. 2015ean ere postu horixe lortu zuen eta 2016an hirugarren geratu zen. Txapelketa bi horiek Portugalen lehiatu ziren. Korrikalari durangarra "pozarren" dago emaitzagaz. "Entrenatzen bai, baina lau hilabete neramatzan lehiatu barik. Hamalagarren kilometroan makalaldi bat izan nuen, baina egotari buelta eman nion eta gustura sentitu nintzen", adierazi du.

Honako hau izan zen bere denbora: 1.13.44. Cristiano Pereira irabazlea gertu izan zuen: 1.13.08. "Pereira Tokioko Joko Olinpikoetan aritu zen eta korrikalari bikaina da. Berarengandik 36 segundora bakarrik geratzea lorpen handia da niretzat. Ezin dut gehiago eskatu", azaldu du. 2023ko bere helburu nagusia Frantzia lehiatuko diren Global Games jokoak izango dira.

Isasik domina bi eskuratu ditu Espainiako txapelketan, eta Zuazubiskarrek bat

Eskualdeko txirrindulari biak Eustrak taldeagaz aritu ziren



Ezkeretik hasita lehenengoa Ziortza Isasi eta hirugarrena Illart Zuazubiskar.

PISTA • J.D.

Joan zen asteburuan pistako Espainiako txapelketa lehiatu zen Valentziako belodromoan. Ziortza Isasi elorriarrak domina bi irabazi zituen; urrea jazarpen proban eta brontzea

kanporaketa proban. Jazarpenean irabazten duen urrezko bigarren domina da, 2020koaren ondoren. Bestalde, Illart Zuazubiskar abadiñarrak brontzea irabazi zuen kanporaketa proban.

Zaldia-Arratia lagunartekoa, Zaldibarko klubaren historiako lehenengo partiduen omenez

Zaldia futbol klubak orain 50 urte jokatu zuen ligako bere lehenengo norgehiagoka, Arratia taldearen aurka; efemeridearen harira, talde biek lagunartekoa jokatuko dute, bihar, Solobarrian. Zalduentzat denboraldiaurreko azken partidua izango da

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Zaldia eta Arratia taldeek esangura berezia duen lagunartekoa jokatuko dute, zapatuan, 17:00etan, Solobarria futbol zelaietan. Izan ere, Zaldibarko klubak talde honen kontra jokatu zuen bere historiako lehenengo norgehiagoka, 1973an. Laster, 50 urte beteko dira. Bihar kolore berdineko kamisetek hartuko dute futbol zelaiak, beraz jantzita daramatenak beste batzuk badira ere. Gaurkoek ordukoen omenez jokatuko dute.

Partiduen atarian orduko jokalariek eta Zaldia sortu zutenak omenduko dituzte



Zaldia jokalariek, 1973an. Hauxe izan zen klubaren historiako lehenengo taldea.

Lehenengo talde hartako jokalariek protagonismo berezia izango dute, lagunartekoaren atarian orduko jokalariek eta Zaldia Kirol Elkarteak sortu zutenak omenduko dituzte eta. Partiduen ostean, ospakizunagaz jarraituko dute, baina futbol zelaietan beharrean Zaldibarko Negugogor tabernan. Izan ere, Zaldia Kirol Elkarteak hantxe

izan zuen bere lehenengo egoitza hasierako urteetan. Omenduei luntxa emango diete Negugogor tabernan.

Klubaren ibilbidea

Zaldia Kirol Elkarteak lau kirol adarrek osatzen dute gaur egun: futbolak, saskibaloiak, pilotak eta mendi taldeek, hain zuzen ere. Lehenengo, futbol kluba sortu

zuten, 1973an. Handik gutxira, pilota eta mendi taldeak batu ziren proiektura. Ordura arte, koru elkartetik kudeatzen zituzten. Elkartek 1978an hartu zuen gaur egungo itxura, saskibaloia taldea sortu zenean.

Ligarako prestaketa

Zapatuko futbol partidua Zaldia azkenengo lagunartekoa

izango da irailaren 18an aurtengo ligari ekin aurretik. Orain arte, prestakuntza bide onetik doala esan daiteke. Izan ere, jokaturiko hiru partidua irabazi dituzte, Castro (5-2), Lemoa Harrobi (2-1) eta Urki (2-1) taldeen kontra. Bihar beste garaipen batek adore handia emango lieke jokalariei Gortexolaren kontrako estreinako partiduen atarian.

Urte biko etenaldiaren ondoren, Zaldia mendi martxa irailaren 25ean bueltatuko da

MENDIA • J.D.

Urte biko etenaldiaren ondoren, Zaldia mendi taldeak antolatutako mendi martxa bueltan dator Iurretara. Irailaren 25ean izango da. Aurten ibilbide bi egongo dira aukeran, eta biak 08:30ean hasiko dira, Iurretako plazatik.

Ibilbide luzeak 24 kilometro ditu, 1.600 metroko desnibel positiboagaz. Aramotz mendilerrotik igaroko dira eta ibilbideko igoera nagusiak Artatzagane (996 metro), Leungane (1006 metro) eta Aizkorri (812 metro) izango dira.

Ibilbide laburra aukeratzen dutenek 620 metroko desnibela gaindituko dute, 14 kilometrotan zehar banatuta. "Zailtasun teknikorik bako" ibilbidea eta umeentzat zein helduentzat "aproposa" dela azaldu dute mendi taldeak. Bitaño, Neberondo, Kataska, Landaederra eta Santa Apollonia igaroko dituzte bidean, besteak beste.

Izen-ematea irailaren 22ra arte egongo da zabalik, www.kirolprobak.com webgunean. Egunean bertan izena emateko aukera ere egongo da (15 euro), martxen irteera baino lehenago. 14 urtera artekoentzat bost euro izango da.

Jokaldia

Piperpotoarekin ni ez!

Udan batek baino gehiagok zoriondu nau munduko txapelketa irabazi dudalakoan. Munduko Kopako proba bi irabazi ditut, ez munduko txapelketa, eta horrekin nahastu dira. Nik nekez irabaziko dut txapelketa, horretarako piperpotoaren (Espainiako bandera) selekzioarekin joan beharko nukeelako derrigorrez, eta hori zama handiegia da niretzat.

Euskal kirolari asko batu da Espainiako selekzioa, bakoitzak jakingo du zergatik eta zertarako, eta ez dut inor horregatik kritikatu, askoren kasuan euren kirol ibilbide profesionala dagoelako jokoan (mendiko lasterketan ez), baina nik nekez ezergatik ere ez dut kamiseta hori jantziko eta Espainia ordezkatu, ez ditudalako kolore horiek neure sentitzen eta nire soinean piperpotoa ikusita



Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendi lasterketak

Euskal kirolari asko batu da Espainiako selekzioa, baina nik nekez ezergatik ere ez dut kamiseta hori jantziko

Nire ustez, piperpotoarekin joatea atzerapausoa da euskal selekzioaren ofizialtasunerako bidean

bakarrak gaitu ere egingo nintzatekeelako (beti kendu izan dut dortsaletik).

Asteburu honetan mendi lasterketen Skyrunning munduko txapelketa jokatu da, Italian, eta, berez, Espainiako Federazioaren hautaketa irizpideak kontuan hartuta, bertan egon behar nuke, emaitzei dagokienez behintzat (Skyrunner Munduko Kopako garaipenengatik), baina ez didate deitu. Eta pena itzela dut,

harro esango nirelako, beste behin ere, ez dudala eurekin parte hartuko, ez nirelako espainiar sentitzen. Baina alde aurretik ere ondo dakite nire erantzuna, beste zenbait korrikalari euskaldunena ere bai, eta Federazioak komunikatu batean plazaratu zuen ez dietela deituko plazari uko egin diezaioketen korrikalariari. Horretan azeri jokatu dute eta satisfazio hori kendu didate. Pena.

Baina pena handiagoa hartu dut korrikalari euskaldunen bat edo beste engainatuta sentitu dela eta haserre dagoela ikusita, zer eta Espainiako selekzioetik kanpo geratu delako. Kontuak kontu, nire ustez piperpotoarekin joatea atzerapausoa da euskal selekzioaren ofizialtasunerako bidean, eta Ander Iñarra taldekideak Berrian idatzi zuenaren haririk, nekez lortuko dugu ofizialtasuna denok eta batera arraun egin ezik.

Botikak

BARIKUA, 9 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL ASKATASUN
ETORB. 19 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO
ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 10 · 09:00-09:00

MUGICA ANDRA MARIA 9 - DURANGO

GOIROTZA

09:00-13:30

SARRIA SASIKOA 17, DURANGO

BALENCIAGA EZKURDI
PLAZA 8 - DURANGO

DE DIEGO INTXAURRONGO
22 - DURANGO

CAMPILLO MONTEVIDEO
ETORB. 24 - DURANGO

UNAMUNZAGA MURUETATORRE
2C - DURANGO

GAZTELUMENDI J.A.
ABASOLO 2 - DURANGO

BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO

NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO

FARMAZIA MATIENA
TRAÑABARREN 15 - ABADIÑO

JAIO-ABENDIBAR ERREKAKALE
6 - ELORRIO

MELERO, ROSA MARI
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

GOIRIA, MARI CARMEN
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE
ZAHAR 14 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN TXIKI
OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN BIXENTE
KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 11 · 09:00-09:00

BALENCIAGA EZKURDI
PLAZA 8 - DURANGO

MELERO, ROSA MARI SAN
PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 12
· 09:00-09:00

NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO

MELERO, ROSA MARI SAN
PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 13
· 09:00-09:00

IRIGOIEN BIXENTE
KAPANAGA 3 - IURRETA

MELERO, ROSA MARI SAN
PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 14 09:00-09:00

SARRIA SASIKOA 17, DURANGO

MELERO, ROSA MARI SAN
PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUENA, 15 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA MURUETATORRE
2C - DURANGO

MELERO, ROSA MARI SAN
PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA



Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Oier (903. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



Zorionak, **Alaz**! Mosu handi bat danon partez, eta, batez be, gure txikitxuen partez!



Zoridxonak ama, amama, birramama. Holantxik jarraitu. Mosu handi bana.



Natali Cebrianek 9 urte egin ditu abuztuaren 30ean. Zorionak, laztana!




Karmelo Iriondok bere urtegune ospatuko dau irailaren 6an. Zorionak, aittite!



Irailaren 5ean amama **Lorenek** 102 urte egin ebazan. Giro ederrien ospatu gendun Zelean. Zorionak etxeko danon partez, amama!



Gure txikiandako, milaka mosu eta besarkada potoloak familian partez. Segi horren distiratsu. Zorionak!



Zorionak, **Ixone**. "40 urte eta gero, hau".

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 29° / 12° ☁️

ASTELEHENA ↓ 33° / 20° 🌧️

EGUAZTENA ↓ 28° / 17° 🌧️

DOMEKA ↓ 36° / 17° 🌧️

MARTITZENA ↓ 27° / 19° 🌧️

EGUENA ↓ 28° / 17° 🌧️

Eskelak



Jose Domingo Aguirrezabal Urien

Durango hil zen, 2022ko abuztuaren 29an, 76 urte zituela



Laixiar eta Zelaño
lehen argia zana, gaur laino.
Haizeagaz bat, gaur libreago
izango zara atzo baino.

lurretako kofradiak

**EKI
NTZ
AK**

2022
2023

biblioteka

IZEN-EMATEA: irailak 14-23 erroldatuak · 21-23 ez erroldatuak
Plaza mugatuak
Doakoak
Bibliotekan, H.A. Z-en edo e-postaz
bibliotekakoekintzak@iurreta.eus



Iurreta
Elezateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA

"Urte biko etenaren ondoren, jendea gogotsu dago Sukalki Eguna ospatzeko"

Kazola artean baino gehiago, antolakuntza lanetan ibiltzen da Alberto Agirre. Maite Arriolabengoak 24 urtean hutsik egin barik parte hartu du Elorrioko Sukalki Egunean



ELORRIO • AITZIBER BASAURI

Zapatuan, kazola hotsa nagusituko da Elorrioko Aldatsekua parkean. 25. Sukalki Eguna ospatuko dute, urte biko etenaren ondoren. Iturri-Zoro elkarte arteko Alberto Agirre eta Maitena Arriolabengo bazkideek modu berezian bizi dute eguna. Kozinatzen eroso sentitzen diren horietarikoak dira, "beldurrik barik", Albertok dioenez. Sukalki Egunean duten guztia ematen dutela gaineratu du Maitenak.

Tradizio handiko hitzordua duzue Sukalki Eguna. Zerk egiten du berezi? Maitena Arriolabengo: Jaietako egunik politena da niretzat, herri guztiak parte hartzen duelako. Oso giro polita sortzen da, eta lehia

ere bai, lehia osasuntsua. Horrek guzti horrek egiten du berezi. Alberto Agirre: Lekuak ere, Aldatsekuak, badu eragina sortzen den giro horretan. Sukalkia kozinatzen dutenak batzen dira lehenengo, eta haien familiakoak eta lagunak gero.

Urte biko etenaldiaren ondoren, gogoz ikusten duzue jendea?

A.A.: Bai, gogotsu dago. Eta harategietan enkarguak eginda daude... Beraz, arrakastatsua izango dela pentsa liteke. Horixe da helburua, ahalik eta jenderik gehienak parte hartzea. 60 laguneko betiko taldeak batu daitezke, eta baita orain dela gutxi elkartu diren talde txikiak ere.

M.A.: Hala da. Ekintza polita da,

eta, gazte zein nagusi, jende askok parte hartzen du.

Gehien-gehien 110 kazola aurkeztu dira Sukalki Egunean, eta urteren batean 20 baino ez

Orain urte bi, 88 kazola aurkeztu ziren. Apurto egingo da aurten errekorra?

A.A.: Ez dago jakiterik. Gehien-gehien 110 kazola aurkeztu izan dira, eta urteren batean 20 baino ez. Eguraldiak ere badu eragina, baina uste dut parte hartzea

handia izango dela. Egun osoko jaia da. Ez dut esango estresantea denik, baina luze egiten da. M.A.: 100 kazolatara helduko gara la esango nuke. Gure kuadrillak urtero parte hartu du azken 24 urtean, euria, txingorra... eginda ere. Eta gure modura, beste askok.

Eraman duzue inoiz saririk etxera?

M.A.: Lehenengo saria inoiz ere ez, baina beti eramán dugu zeozer etxera. Bigarren saria, hirugarrena, laugarrena, hamazortzigarrena... Sekula ere ez gara esku hutsik joan etxera. Etxeko kazolekin hasi ginen, baina sari horiei eskerrak azpiegitura handitzen joan gara (sua, kazola berriak, karpa...). A.A.: Nire curriculumak ez da Maitenaren bestekoa. Bi-hiru urtean parte hartu dut elkarteren bategaz, baina urte hauetan guztietan antolakuntza lanetan ibili naiz batez ere. Lan handia dago atzetik.

Inoiz gertatu da su-itxalgailua erabili behar izatea kazolaren bat erre delako. Eta inoiz jausi da sukalkia behera, justu aurkezterako momentuan

Aurten badago nobedaderik?

A.A.: Bai, Elorrion bertan kontsumitzeko bonuak izango dira sariak. Hotel batean gaua lagun birentzat, taberna batean kopau bat hartzeko bonua, dendaren batean erabiltzeko erosketa-bonua...

Baduzue gogoan pasarte berezirik?

M.A.: Guri ez zaigu gertatu, baina inoiz gertatu da su-itxalgailua erabili behar izatea kazolaren bat erre delako. Eta inoiz jausi da sukalkia behera justu aurkezterako momentuan. Euritakoagaz sua zaintzen ere egon behar izan dugu inoiz (barrez).

Sukalki ona prestatzeko sekretua?

M.A.: Lehengai onak izatea, baina ez da osagai askorik behar. A.A.: Salda ona lortzea ere garrantzitsua da. Bertoko lehengai onak izatea, eta, kozinatzerakoan, behar duen denbora ematea.

Lauhortza

Karolina Suarez Borges
Kazetaria



Egiazko deskantsu egunik ez

Itsas kontuetan aditua izateaz gain, zorrak pilatzen ere trebea omen zen Elkano. Nahiz eta garai hartan Gaztelako erresuman atzerritarrei itsasontziak saltzea delitua izan, zorrak kitatzeko eman zuen berea. Legetik ihesi iritsi zen Sevillara. Ez zuen ezer galduhan. Guk, ordea, harekin zorretan egongo bagina bezala, ospakizunerako hartu dugu martitzena.

Arrazoiz jaiegunen antolamendu honi eustea zaila da, oso. Hala, makineria instituzionalak prestatutako Elkano marka irentsi dugu. Agian, euskaldunok ez dakigu gure lorpenak saltzen; erreferente bat lehiatu nahi diogu Espainiari itsuan, iraunarazten gabiltzanari arretarik eskaini gabe.

Errege bati gorazarre egite-tik, bizirik heldu ziren Espainiako Enperadorearen agindupeko gizonak goraiatzera pasatu gara. Gainera, erakunde denek erosi dute bertasio akritikoa. Akaso, Elkanoren teilatua hautatzen okertu gara eta erosoezia da eraiki dugun etxea. Kontua da espazio publikoan altxatu dugula, eta hori etorkizunerako nahi dugunaren isla da.

Gure historia berridazteko hainbat ahalegin lorutzen dabilta. Hala ere, nahiz eta errelatoa guk idatzi, mundu hobe bat proiektatu nahi badugu, erreferenteak tentuz aukeratu behar ditugu. Gauza bat da euskaldunei nabigatzea ahalbidetu zien trebetasuna eta industria goraiatzeko. Beste gauza bat da herrialde baten enbaxadore bihurtzen saiatzea asmo inperialen lagun bat.

Artean, nire urteguna jaiegun bihurtzen saiatuko naiz, arrazoizko atsedenerako ez zait besterik okurritzen eta.



Gure aukerak,
zuretzat onenak!

Saldu, erosi, trukatu, oparitu... EUSKARAZ!